

BAIONAKO MINTZALDIA - TESTUAK – IRAKURKETAK

2025-01-30

J.B. Elizanburu : *Eskuara eta Eskualdunak.* (1880)

3. Gure aitaso Kantabreak mende zaharretan,
Gu orai gisa hedatuak alor hautan beretan,
Anaiak ziren « Guziak bat » mendien bi aldetan ;
Jainkoa xoilki zen errege Eskualdun etxoletan.

4. Nork ez dituzte gure aiten balentriak aditu ?
Zelaietako zonbat etsai hek ez zuten suntsitu ?
Semeak aita dik iduri, zeren nihork ez baitu,
Bere herrian egundaino Eskualduna garraitu.

7. Zer da liburu zaharrenek erakasten dutena ?
Urrunegitik heldu dela Eskualdunen omena...
« Ez dakitela noiztik duen Eskuarak hastapena... »
Zeren Eskuara baita, naski, mintzoetan lehena ?

Julien Vinson : *Les Basques et le Pays basque* (1882).

« Plusieurs écrivains de mérite, français ou espagnols, étaient Basques. Mais, il n'existe pas de littérature nationale proprement dite. Les quelques cinq cents ou six cents volumes en langue basque qui ont pu être répandus dans le pays sont des traductions du français, de l'espagnol ou du latin ; et le très petit nombre des ouvrages originaux ont été certainement pensés et écrits par des gens qui avaient reçu une éducation complètement française ou castillane. Ce sont en général des livres religieux d'un intérêt des plus médiocres... » (...)

Plus intéressant est à coup sûr ce qu'un de mes amis, M. Paul Sébillot, a si ingénieusement appelé la littérature orale. Evidemment, il n'y a là rien de bien original, car les Basques ont été plus civilisés, formés, élevés par des populations intellectuellement supérieures ; mais au moins y a-t-il plus de spontanéité : les contes, les rondes d'enfants, les devinettes, les formules de jeux, les proverbes, les chansons, sont un produit spontané du sentiment populaire.

Pierre Lhande : *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925).

Il y a un axiome qui court les manuels et les dictionnaires : les Basques n'ont pas de littérature. A vrai dire, je me déclare prêt à reconnaître le bien-fondé de cette affirmation, si ce mot « littérature » suppose nécessairement des monuments littéraires d'une lointaine antiquité ou, du moins, des chefs-d'œuvre plus modernes connus (...). Je le confesse : l'euskara n'a ni

ses *Nibelungen*¹, ni sa *Chanson de Roland*² (XI.) : et il attend toujours un Mistral pour nous donner sa *Mireille* (XIX). (...)

Pardon... Qu'il me soit permis d'affirmer bien haut : « La littérature basque existe ; et non pas seulement la littérature de folklore (proverbes, devinettes, chansons légères) mais la littérature proprement dite, l'expression hautement littéraire du génie lyrique ou esthétique d'un peuple, d'une race, d'une langue. (...). La méconnaissance dont la littérature basque est l'objet est due, il me semble, à deux causes : l'exceptionnel isolement où l'a mise une langue vraiment inaccessible ; puis le caractère très spécial de sa beauté littéraire. »

Ibon Sarasola : *Euskal literaturaren historia* (1971)

Bestalde, euskal idazlea errealitate sozial berri batetan aurkitzen da. Industrializazioaren ondorioz Euskal Herriko proletargoa haundituz zoen. 1855-ean iadanik 55.336 langile zegoen Bizkaian. 1930 inguruan, Bizkaiko langileak 80.000-ren bat ziren, gehienak Bilbon eta inguruetan, Gipuzkoan 47.000; (...) Euskal Herriko sozialistak, orotara, 100.000-tik gora ziren.

Garaiko euskal literatura estudiantuz gero, ba dirudi guzti hau ez dela egia, beste Euskal Herri horrek ez duela esistitzen, guzti hori ez dela Euskal Herria. Hau esplikagarri da zeren euskal literatura sustraitzen zuen Arana-Goirenen ideologia, Euskal Herriaren zati honez kontu egin gabe eratu baitzen. Nazionalismoak ez zion euskal proletargoari soluzio-biderik ematen (...).

Euskal literaturako Euskal Herria, halabeharrez, baserri xuriak, gure mendi eta zelai ederrak dira ; haren pertsonaiak arrantzale zintzoak eta ohitura zahar eta beneragarriak gordetzen dituzten baserriarrak. Euskal Herri parzial horretan desarrolatuko da euskarazko literatura.

Jurgi Kintana : *Urre urdinaren lurrina. Euskal idazle galduaren bila (1810-1940)*, 2009.

Apokrifo posiblea

Euskaraz ez daukagu mendetako tradizio literario jasorik, dela segitzeko, dela moldatzeko, dela kontra egiteko (...). Gure literaturaren tradizio ziztrinean dauden hutsuneak betetzeko premia larrian gaude, eta apokrifoak bide ezin hobea begitantzen zaizkit. [...] XIX. mendeko nobela errealista baten aldeko apustua egingo dut. [...] Nobela apokrifo hori ezin da *inolaz ere* kostunbrista izan, baizik eta erabat errealista, edo are naturalista ere, Flauberten, Zolaren, Clarínen edo Galdosen ildoan.

Bostehun orrialde izango ditu gutxienez, eta egile apokrifo liberala izan beharko litzateke, liberal fuerista nahi bada, baina liberala, eta, jakina, antiklerikala. Familia baten edo batzuen gorabeherak kontatuko dira bertan, sortzen ari den burgesia berriaren inguruko istorio tipikoak (adulterioa(k), dirugosea, klase-igoera, gizarte modu zaharren erresistentzia, bizitzaren hutsalkeria...).

¹ *Nibelungen* : Lehen kantu epikoa « aleman zaharrean », XIII.

² *Chanson de Roland* : Lehen kantu epikoa « frantses zaharrean » XI.